



# Euskaljakintza: euskara eta teknologia berriak

*Maite Goñi*

Jakintza Ikastola, Ordizia (Gipuzkoa)

*Euskal Hizkuntza eta Literatura DBHO 2. mailan blog baten bidez*

## Zer da euskaljakintza?

Azkenaldian, web 2.0 edo Internet berriaz nonahi entzun dezakegu. Asko hitz egin da, halaber, irakaskuntzak internetera hurbiltzeko eta berau ulertzeko modu berri honi atera dakizkiokkeen onurez. Jakintza Ikastolako IKT taldean, duela urte batzuk hasi ginen ohartzen onura hauez eta hausnarketa sakon baten ondorengo emaitza dira gaur egun abian ditugun hainbat proiektu. Garbi ikusi genuen web 2.0 delakoak orokorrean asko eskaintzen zuela, eta irakaskuntza arloan bereziki emankorra izan zitekeela. Alde batetik, dohaineko eta erabilerrazak diren tresna mordo bat (blogak<sup>1</sup>, wikiak<sup>2</sup>, webquestak<sup>3</sup>, batzaileak<sup>4</sup>, marka-gune sozialak<sup>5</sup>...) jartzen dira gure eskura; eta, bestetik, hori bezain garrantzitsua den filosofia berri bat (partekatzea, ezagutza denon artean eraikitzea, autonomiaz jokatzeko, irakaslearen *rola* aldatzea...).

Gauzak horrela, ez genuen nahi teknologia berrien inplementazioa informatikako klaseetara edo ordenagailu gehiago erostera mugatzea. Esparru eta gai guztietara heltzea nahi genuenez, metodologian eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan eragitea ezinbestekotzat jo genuen. Testuinguru horretan ulertu behar da gure lehenengo blogen sorrera: IKTeroak<sup>6</sup>, Jakinste<sup>7</sup>, Ordizia, Jakinmin eta euskaljakintza<sup>8</sup>.

Euskaljakintzaren kasuan, aurreko guztiari DBHO2ko ikasleen motibazio eza euskara gaiarekiko gehitu behar zaio. Ez nuen nik beraien jakin-mina piztea lortzen inondik ere. Aurreko ikasturtearen helburua EGA ateratzea izanik, behin bide hori sakonki landuta, eta kontuan izanda hautaprobetan ez direla eduki bereziak eskatzen, izugarri kostatzen zitzaidan beraien interesa neureganatzea. *Zertarako ikasi behar dugu hau ez bada Hautaprobetan sartzen?* Hauxe izaten zen, egitasmoarekin hasi aurretik, gehien entzuten nuen galdera. Beraz, zerbait gaizki egiten ari nintzen. Gure jomuga Hautaprobetarako prestakuntzara mugatzea ez zela azalduta ere, ez nuen beraien jarrera aldaraztea lortzen. Arazo hau abiapuntu eta IKT taldekoen artean hamaika

aldiz hitz egindakoari eutsiz, nire gaiaren planteamendua iraultzea erabaki nuen: **Euskara** eta **teknologia berriak** uztartzeko asmoz, **blog** bat sortuko nuen. Hasiera-hasieratik garbi nuen bloga ez zela tresna gehigarri bat izango, gaiaren ardatz nagusia baizik. Honela, ikasleek gustuko ez zuten testu liburua alde batera utzi, eta euskara irakasgaiaren asteko hiru orduetan ordenagailu gela erabiltzen hasiko ginen.

## Helburuak

Honelako erabaki bat hartzeko, ordea, helburuak garbi izatea ezinbestekoa da. Hauexek izan ziren nire helburuak:

- Euskara jakintzagaian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondorengo bigarren mailan, DBHO 2n, eman beharreko edukiak teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak erabiliz jorratu (sarean dauden baliabideei onura atera).
- Euskarazko irakurmena, idazmena, entzumena eta ahozketasuna kilikatu.
- Apendizaia aktiboa bultzatu.
- Talde lana sustatu (elkarrekin lan egiten ikasi, partekatu...).
- Ohiko irakasle/ikasle rola aldatu (denok denongandik ikasi: ikasleek irakaslearengandik, ikasleek beste ikasleengandik eta baita irakasleak ikasleengandik ere).
- Ikasleen ikaskuntza prozesuan euskarri digitalaren erabilera sustatu eta indartu.
- Ikasleak neureganatu eta gaiarekiko motibazioa piztu.
- Euskararekiko jarrera aldatu (euskararekiko benetako jarrera aktiboa lortu).
- Sortutako ezagutza gizartearen esku jarri.

## Hasierako zailtasunak

Proiektua abian jartzeko hainbat zailtasun izan nuen. Hasteko, nire teknologia berriekiko ezagutza guztiz urria eta eskasa zen. Halere, prest nengoen ikasteko eta proiektu berriak ematen zidan ilusioa nire jakite pobreak gailendu zitzaion. Horrela, udan lanari ekin nion zetozen zailtasunei ahal nuen moduan aurre eginez.

**Hasteko, gure blogak ohiko testu liburuaren papera ordezkatzeari nahi nuen.** Nola sartu bertan testu liburuko eduki guztiak? Ohartu nintzen ez nituela horiek guztiak blogean behar. Aitzitik, informazio iturri ezberdinak ikasleen esku jarri ondoren, eurak bultzatuko nituen material horiek sortzera. Asmo horrek, blogez gain, beste hainbat 2.0 baliabide ezagutzera eraman ninduen, *webquestak*, esaterako. Azken hauek tresna erabat

egokiak suertatu dira lanketa mota honetarako; izan ere, ikerketara zuzenduriko jarduerak prestatzeko baliabide hauen bitartez, aprendizaia aktiboagoa, autonomoagoa eta esanguratsuagoa bihurtu da. Halere, hori hasiera baino ez zen izan, beranduago etorriko baitziren *wikiak*, *podcastak*<sup>9</sup> eta beste hamaika baliabide, denak erabilerrazak eta musu-truk.

**Hastapenetan, ikasleek nik uste baino gutxiago menperatzen zuten ordenagailua** eta proiektuaren nondik norakoaren azalpenari zein zerbitzu berrietan izena emateari (*wetpaint*, *blogs*, *google docs*, *gravatar*...) aurreikusita nuena baino denbora dezente gehiago eman behar izan genion. Aipatu behar da, urteak aurrera joan ahala, *euskaljakintzara* iristen diren ikasleen prestakuntza eremu horretan gero eta handiagoa dela. Hori dela eta, egun, ez da beharrezkoa denbora gehiegi zeregin hauetan xahutzea.

Zailtasunak alde batera utziz, aitortu beharrea nago hasieratik proiektuak harrera ona izan zuela ikasle gehienengan (beti dago bat edo beste tramankulu hauekin moldatzen ez dena eta denerako zailtasunak ikusten dituen, noski). Urtetik urtera, gainera, hobea da; izan ere, beste mailako ikasleek gure lana ezagutu eta erabiltzen dutenez, lekukoa hartu behar dutenean, lan hori jarraitzeko grinaz etortzen baitira.

## **Metodologia**

Helburua material guztia guk geuk sortzea izanik, metodologia eta ikasleen jarrera erabat aktiboa eta parte-hartzailea izatea ezinbestekotzat jo nuen. Ez dago zalantzarik, ikasleen hizkuntza trebetasunak garatu ahal izateko, hauek etengabe hitz egitera eta idaztera bultzatu behar ditugula, idatzizko zein ahozko ekoizpenak erruz eginez. "Ongi hitz egiten hitz eginez ikasten da eta ongi idazten idatziz ikasten da".

Alde horretatik, nire helburua ikasleek benetako gertakariak simulatzea eta, hainbatetan, irakaslearen papera hartzea zen. Gerora ezagutuko nituen Daleren esperientziaren konoa eta berak aurkeztutako jatorrizko ideien hainbat aldaera. Eta nahiz eta adituren batek edo bestek jarraian azaltzen diren datuak zalantzan jarri (batez ere Daleren jatorrizko konoan zenbakiak azaltzen ez direlako), garbi ikusi nuen nire ikuskera bertan islatzen zela.

## Ikaskuntzaren konoa (Edgar Dale)

Gogoratu ohi dugu

Egiteko gai gara

Irakurritakoaren %10	Irakurri	• Definitu	• Deskribatu
Entzundakoaren %20	Entzun	• Zerrendatu	• Azalpenak eman
Ikusitakoaren %30	Irudiak Ikusi Bideoak Ikusi	• Frogatu	
Entzun eta irakurritakoaren %50	Erakusketa batera joan Frogaketa bat ikusi	• Aplikatu • Praktikatu	
Esan eta idatzitakoaren %70	Mintegi praktikoa batean parte hartu Elkarlean ikasgaiak ekoiztu	• Analizatu • Diseinatu	
Esan eta egindakoaren %90	Benetako gertakariak simulatu Antzeztu – Ikasi nahi duzun hori “egin”	• Sortu • Ebaluatu	

Adapted from Wiman & Meirhenry,  
Educational Media, 1960 on Edgar Dale

Itzulpena:  
Maite Goñi

Computer Strategies, LLC © 1999, all rights reserved

Hortaz, hauexek izan ziren hasieratik gure lanerako ardatz nagusiak:

- Irakasleak proiektuetan banatutako ikaskuntza-irakaskuntza prozesua gidatzen du, proiektu horiek errealitateetik ahalik eta gertuen egon daitezen ahaleginduz, errealitatean ematen diren egoerak abiapuntutzat hartuz, alegia. Ikasleen eskura baliabide mordoska jartzen dira eta helburua da, hauek arazo edo egoera bati aurre egiteko, tresna horiek erabiltzen jakitea. Azken batean, apendizai esanguratsua lortuko badugu, ezinbestekoa da ikasleei bizitzaren egoera jakin batzuetan baliabide jakin batzuekin aurre egiten erakustea. Gauzak horrela, irakasleak, hainbat web 2.0 baliabide bitarteko, lanketaren jarraibideak eta esteka interesgarri eta baliagarriak ikaslearen esku ipintzen ditu.
- Irakasleak dira, irakaslearen laguntzarekin eta honen gidaritzapean, ikasteko materialak sortu eta gainerako ikasleen aurrean irakasle papera hartzen dutenak, euren lanaren nondik norakoa eta emaitzak azalduz.
- Irakasleaz gain, ikasleek ere proiektu gehien balorazioan esku hartzen dute.
- Sortutako guztia -apunteak, multimedia aurkezpen eta ariketak, informatikako aplikazioen itzulpenak, tutorialak, eta abar- denon eskura jarri ohi dugu.

Nola gauzatzen da, bada, hori guztia gure lanketa ezberdinetan?

### **Idazmenaren lanketa**

Idazmena hobetu ahal izateko, hainbat lanketa eramaten dugu aurrera: blogean argitaratzeko artikulu ezberdinak idatzi, taldeka istorio elkarreragileak sortu, aplikazio informatikoak itzuli...

Bloga tresna bereziki egokia suertatu da, guri dagokigunez, hizkuntza trebetasun hau lantzeko. Ikasleak *idazle-kazetari* bihurtu dira eta euren artikuluak idazten dituzte jakinda ikastolakoak ez diren irakurleak izango dituztela. *Aurki.com* eta *gaur8* bezalako atarietan zein blog ezberdinetan azaltzen da guk argitaratutako oro eta kanpotik ere artikuluei buruzko iruzkinak jaso ohi ditugu. Izugarritzko eragina izan zuen ikasleengan, esaterako, Julen Gabiria idazlearen edo HUHEZIKo Joxe Aranzabalen animu hitzak jasotzeak blogarekin hasi eta denbora gutxira. Gizarte-dimentsio eta oihartzun honek, aparteko motibazioa emateaz gain, arduratsuago bihurtu ditu idazterakoan. Euskara egoki nahiz zuzena erabiltzen saiatzen dira, eta, helburu horrekin, blogean txertatu ditugun baliabideak, erabili nahi dituen edonoren esku daudenak, maiz baliatu ohi dituzte (hiztegi batua, sinonimoak, euskara-gaztelania hiztegiak, antolatzaileak, atsotitzak, esamoldeak, ...).

Garai batean, ikasleek euren idazlanak *betelan* bezala aurkezten zizkidaten. Gaur egun, prozesua eta emaitza oso bestelakoak direla esan dezaket. Hasteko, gaiaren egokitasuna eta ikuspegia nirekin partekatzen dute eta, jarraian, artikulua aberasteko ipin ditzaketen esteka eta mota guztietako baliabideak bilatzeari ekiten diote. Nabarmentzekoa da, halaber, komunikazioaren atala. Izan ere, artikuluetan iruzkinak uzteko aukera horrek asko areagotzen baitu komunikazio arloa (bai gure artean, baita kanpoko irakurleekin ere).

Hurrengo urratsak jarraitzen ditugu artikulu bat argitaratu aurretik:

- **Gaia eta erabiliko diren gehigarriak (estekak, irudiak, bideoak...) hautatu.** Ikasleek ardura handia jartzen dute nola gaiaren hautaketa egokian, hala erabiliko dituzten gehigarrien bilaketan. Beraz, euskara arloa jorratzeaz gain, informazio miaketa eta eraldaketa ere sartzen dira lanketa mota honetako idazte-prozesuan.
- **Autoebaluazioa egin eta lan-koaderno digitalean zirriborroa gorde.** Ikasle bakoitzak wiki bat du lan-koaderno gisa. Bertan, ikasturte osoan zehar egindako

lanketa guztien (ahozkoak zein idatzizkoak) zirriborroak gordetzen dituzte. Gauzak horrela, testua idatzi eta berau amaitutzat eman aurretik, autoebaluazioari ekiten diote. Zeregin horretarako diseinatua dugun txantilo bat erabiliz, ikasleek atalez ataleko (edukiak, antolaketa, morfosintaxia, ortografia...) autoebaluazioa eta balorazio orokorra burutzen dituzte. Garrantzi handia ematen diogu urrats honi; izan ere, euren indarguneak zein ahuleziak identifikatzeko oso mesedegarria gerta baitaiteke. Moodle plataforma birtualaren bitartez, autoebaluazioa helarazten didate.

- **Multimedia baliabideak euskaljakintzara igo.** Zirriborroa idatzi ondoren, ikasleak euskaljakintzaren administrazio gunean sartzen dira. Artikuluari titulua jarri eta bertara multimedia baliabideak igo ondoren, zirriborro gisa gordetzen dute. Ikasleen lana amaitzen da hemen eta irakaslearena hasten da.
- **Irakaslearen zuzenketa eta balorazioa.** Irakaslea ikaslearen wiki edo lan-koaderno digitalean sartu eta dagokion artikuluan egin beharreko zuzenketak egiten ditu. Wikiak direla eta, komeni da esatea ezaugarri bereziko webguneak direla. Gune horietan hainbat erabiltzailek orrialdeak sor, edita, ezaba eta eralda ditzake. Ez hori bakarrik, prozesu osoan zehar egindako aldaketa guztiak gordeta gelditzen dira eta nork eta noiz egin dituen ere ikus daiteke. Horiek horrela, dokumentuaren bertsioak erkatu eta egile ezberdinen aldaketak gorriz eta berdez azaltzen direnez, ikasleek oso garbi ikus dezakete zer zuten idatzia eta zein izan den irakaslearen zuzenketa. Horrela, ondo egindakoa, akatsak eta hobetzeko arloak, besteak beste, ikus ditzakete. Zuzenketarekin batera, irakasleak atalez ataleko balorazio txantiloia bidaltzen die. Esan beharra dago, ikasleek aldeztu aurretik ezagutzen dituztela zuzenketa irizpideak eta irakasleak zuzentzeko erabiliko duen txantiloia.

Ikasleek bi artikulua idazten dituzte ebaluazio bakoitzeko; beraz, sei ikasturtean zehar. Horietako bat **elkarrizketa** bat da.

Ahazkotasuna eta literaturarekin egin ohi dugun lez, webquest batez baliatzen gara elkarrizketa lantzeko. *Solasean*<sup>9</sup> deituriko webquesta da, hain zuzen ere, alor hau lantzeko abiapuntua.

Sarean tresna didaktiko interesgarri anitz dagoela garbi dago. Horietako bat aurretik hainbatetan aipatu dudana **webquest** delakoa da. Webquestak irakasleek ikasleei begira diseinatzen dituzten ikerketa-jarduerak dira. Ikerketa hori burutzeko iturri nagusia sarea izan ohi da. Oro har, lan kooperatiboa bultzatzen dute, eta taldeko partaide bakoitzak lanaren zati baten ardura izan

ohi du. Jarduera ondo diseinatzen bada, webquestak ikaslea gaitasun kognitiboak erabiltzera behartuko du, gaitasun kritikoa jorratuz eta ikerketaren bide zabalak irekiz. Honaino teoria. Praktikan, aldiz, konturatuta nago helburu horiek guztiak bete gabe ere, irakasleoi baliagarriak suerta dakizkigukeela, horietaz gaindi, beste mota bateko jarduerak ere diseinatzeko. Horixe izan da webquest honen kasua.

Hasteko, aitortu beharrean nago, azkenaldian, apendizaiia esanguratsuarekin nahiko kezkatuta nabilela. Zenbatetan ez ditugu ikasi edo erakutsi gerora begira oso baliagarriak ez diren edukiak? Eduki horietako askok ba al du errealitatearekin eta bizitzarekin zerikusirik? Zer egin dezakegu bi horiek uztartzeko eta ikasitakoak zentzu handiagoa izateko? Bada, galdera horiek buruan bueltaka, elkarrizketak lantzeko webquest hau prestatzeari ekin nion. Jaso beharreko hainbat eduki -kontzeptu nahiz jarrerazkoak- ikastolatik at lortzea nahi nuen. Beraz, webquest hau diseinatzerakoan, nire asmoa ez da izan ikasleen lan kooperatiboa bultzatzea, bakarka *kalera irtenaraztea* baizik, gelako paretak zeharkaraztea, alegia. Bi hitzetan, autonomia lantzea. Ikasleek bi ataza egin behar dituzte:

- Gaia, pertsonaia(k) eta hitzordua hautatu eta galdera-sorta prestatu ondoren, elkarrizketa bat egin.
- Egindako elkarrizketa euskaljakintzan argitaratzeko atondu.

Prozesua erabat zehaztua dago, hala elkarrizketa aurreko urratsak, nola elkarrizketan zehar egin beharrekoa. Elkarrizketa ondorengo pausoak eta hainbat adibide ere ematen dira. Horrez gain, ordenagailu bidezko ikerketa bultzatu nahian, elkarrizketatuek baldintza batzuk bete behar dituzte: sarean eurei buruzko informazioa lortzeko adinako zerbait eginga izatea, nolabaiteko oihartzuna lortutakoak izatea...

Bestalde, txantilo bitarteko baloratzeko sistemari egoki iritzita, bi txantilo diseinatuak ditut lanketa honen baloraziorako. Bata, prozesu osoa neurtzeko eta, bestea, hori bezain garrantzitsua izan daitekeen ikasleen autoebaluaziorako.

Aitortu behar dut ezusteko ederrak jaso ditudala lanketa osoan zehar. Hasteko, ikasleek nire aurreikuspen guztiak gainditu dituzte, hala euren pertsonaien hautaketetan, nola egindako lanketetan zein izandako jarreran. Ikasleek oztopo ugari aurre egin behar izan diete euren helburua lortzeko: zenbaitetan hitzordua behin baino gehiagotan adostu, kilometro ugari bidaiatu, elkarrizketak atzeratu, aurreratu, trenean ez atzera ez aurrera gelditu, bideo grabazioak galdu...

Oztopo horiei guztiei aurre egiteko ikasleek izan duten jarrera eta lanaren emaitza azpimarratu nahi nituzke. Ikasleek izugarrizko lana egin dute; izan ere, ikusi besterik ez baitago nolako elkarrizketa landuak eta interesgarriak aurkeztu dituzten.

Hori gutxi balitz, elkarrizketen inguruan aparteko giro berezia sortu da. Hasteko, elkarrizketatu guztiek gure eskaerari eskuzabaltasun osoz erantzun diote, galderei adeitasunez erantzun eta euren etxeko ateak euskaljakintzakooi zabalduz. Bestetik, etengabeak eta zenbatezinak izan dira egindako elkarrizketengatik ikastolako irakasle, guraso, ikasle nahiz kanpokoengandik jasotako zorionak. Zalantzarik ez dago honek guztiak izugarri areagotu duela ikasleen motibazioa.

### **Ahozketasunaren lanketa**

Jendaurrean hitz egitea ez da ikasle askorentzat atsegin handikoa. Gehienak oso urduri jartzen dira, beste batzuk blokeatu egiten dira... Edonola ere, nire ustez, eskolan landu beharreko ezinbesteko gaitasuna da. Bizitza honetan askotan suertatuko zaie gure ikasleei jendaurrean hitz egin behar izatea eta zenbat eta lehenago hasi, orduan eta hobeto. Jakintza Ikastolan saiakera ezberdinak egin ditugu alor honetan eta oraintsu ari gara jendaurreko azalpenetan lau hizkuntzetan jarraitu beharreko protokoloaren txosten bateratua prestatzen (etapa guztietan eta gai guztietan -fisika edo matematikan, gizarte zein ekonomian - mota honetako jardunetan jarraitu beharreko urratsak identifikatu eta zehazten).

Lehen aipatu dugun legez, ahazketasuna lantzerakoan, abiapuntua webquest bat da, *Ahazketasuna lantzen*<sup>10</sup> delakoa. Bertan lanketa osoan zehar jarraitu beharreko urrats guztiak zehazten dira, behar dituzten esteka guztiak ematen dira eta balorazioa nolakoa izango den finkatzen da. Honako hauek dira gure helburuak:

- Ahozko diskurtso koherente eta zuzen bat sortu.
- Ideiak ahoz arrazoitu eta aurkeztu.
- Ahozko azalpen bat ondo egituratu.
- Ideia nagusiak eta osagarriak bereizi.
- Antolatzaile egokiak erabili.
- Ahozko azalpena hobetzeko hainbat baliabide erabili.
- Modu kritikoan entzuten ikasi.



Prozesu osoaren amaieran, ikasle bakoitzak 4 minutuz ondo egituratutako azalpen bat eman behar du gela osoaren aurrean horretarako prestatutako eskema baten laguntza bakarraz. Ikasle batek hitz egiten duen bitartean, beste guztiek adi egon behar dute, ondoren, txantilo bat erabiliz, hitz egin duenaren balorazioa egiteko.

Dena den, hori bezain garrantzitsua da prozesu osoan zehar hobetzeko aukera izatea. Horregatik, jendaurreko azalpen horretara iritsi aurretik treba daitezen eta beldurrak nahiz lotsak uxa ditzaten, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukera aparte baliatzen gara. Gauzak horrela, ikasle bakoitzak audioblog bat (ahozko mezuak edo podcastak grabatu ahal diren gune bereziak) sortu eta, gutxienez, 4 mezu grabatu behar ditu (minutu bateko mezuekin hasi eta 4 minutura arte). Horietako mezu bakoitzak aurretik aipatutako prozedura jakin bati jarraitu behar dio (sarrera, garapena, hitzuztea, eskema...).

Euren audioblogetan grabatutako mezuak zein jendaurreko azken ahozko jarduna alde aurretik ezagutzen duten txantilo baten bitartez neurtzen dira. Esan beharra dago lanketa honek ez duela bukaeran eduki kontzeptualen barneratzea neurtuko duen azterketa orokor bat. Horretaz luze mintza nintzateke. Izan ere, azterketa ez izanda ere, edo juxtu horregatik, inoiz baino denbora, esfortzu, gogo eta lan gehiago eskaini ohi diote lanketari.

Lanketaren indarguneak:

- **Mezu eta eskema ugari prestatzea.** Nire ustez, lanketa honen bitartez, ondo barneratzen dira ahozko jardun antolatu batean jarraitu beharreko urratsak. Aurrerantzean, antzeko egoeraren bat suertatzen bazaie, oso baliagarria gertatuko zaie ikasitakoa.
- **Ikasleen jarrera lanketa osoan zehar.** Ikasleek ez dituzte mezuak bat-batean grabatzen. Mezu bakoitzaren atzean dagoen lana garbi ikusten da grabazioak entzutean.
- **Ikasleen arteko harremana estutzen da.** Zalantzarik ez dago tresna hauek komunikazioa areagotzeko balio dutela, harremanak estutzeko. Ikasle batzuek besteen audioblogetan zorion mezuak uztea ohiko bihurtzen da, baita plataforma hauek erabiliz elkarri abestiak, bideoak, eta abar eskaintzea ere.
- **Jendaurreko azalpenen balorazioetan irakasle eta ikasleen arteko adostasuna.** Denok baloratzen ditugu

ikasle guztien 4 minutuko mintzaldiak, nahiz eta jakin badakiten nire balorazioak pisu handiagoa duela. Esan beharra dago, oro har, nik ondo baloratutako ikasleak haiek ere ondo baloratzen dituztela eta nik okerrago baloratutakoak, haiek ere bai. Nire ustez, ikasleak aintzat hartzen direnean, ederki asko jakiten dute euren erantzukizunei aurre egiten.

Ondorioak:

- Argi dago teknologia berriak ez direla ezinbestekoak ahozkotasuna lantzeko orduan, baina hori bezain begi bistakoa da aukera erakargarri bezain erabilgarriak eskain diezazkiguketela.
- Bestalde, ahozkotasuna modu antolatu batean eta edozein arlotan txiki-txikitatik jorratzea ezinbestekoa dela iruditzen zait. Mota honetako gaitasunen lanketa hizkuntza irakasleen esku uzten badugu, ezer gutxi lortuko dugu. Hori gerta ez dadin, haurrak idazten edo hitz egiten hasten diren momentutik irakasle edota guraso guztiok, ahal dugun neurrian, hizkuntza irakasle bihurtu beharko genuke; azken batean, hizkuntza da alor guztietan ezinbestekoa den bitarteko tresna.

## **Gramatika**

Hizkuntzaren alor hau lantzeko, ohikoa izaten da ikasleek jarduera liburuetatik ateratako ariketak osatzea eta, jarraian, irakaslearen laguntzaz zuzentzea. Bada, ikasleek era ekinkorragoan aritzeko, prozesua irauli dugu ikasleak jarduera hauen diseinatzaile eta sortzaile bihurtuz. Honela, jarduera ezberdinak sortzeaz gain, horientzako erantzunak ere aurkitu behar dituzte prozesu osoan parte hartuz. Aprestua askoz ere esanguratsuagoa bihurtzen da, zalantzarik gabe. Jarduera horiek sortzen ari diren bitartean, irakasleak prozesua gainbegiratu eta, bukatzean, behin-betiko zuzenketak egiten ditu. Ondoren, sortutako jarduerak aplikazio batera (Hot Potatoes, Content Generator...) pasatzen ditugu eta, azkenik, sarean jartzen ditugu edonoren eskura.

Prozesu osoa askoz ere aberatsagoa izateaz gain, emaitza ere halakoxea da; izan ere, bikote edo talde bakoitzak eurek sortutako jarduerak egiteko aukera izateaz gain, beste guztienak ere egin baititzakete. Gainera, paperean egindako jarduerekin alderatuz gero, jarduera-sortarazleekin egindako ariketek bi abantaila nagusi dituzte:

- Saiakuntza bakoitzean, hurrenkera ausazkoa da. Hau da, ordenagailuan ariketa kargatzen den bakoitzean ariketaren hurrenkera aldatu egiten da eta, horrela, behin eta berriz saia daitezke jarduera menperatu arte.
- Erantzuna zein azalpenak bat-batean lor daitezke, balio erantsi handia emanez lanketari.

Zalantzarik gabe ariketak sortzen dituzten ikasleentzat lanketa mota hau guztiz aberasgarria da. Horretaz gain, oso pozgarria da ikustea euskara ikasten ari den ororentzat ere baliagarriak direla. Horiek horrela, gure ariketak euskaljakintzan dugun altxorrik preziatuenetakoa dela esatea ausartuko nintzateke; izan ere, egunero ehunka bisitari izaten ditugu ariketa horien bila.

Euskaljakintzara iristen diren ikasle berriak ere lehendik noizbait ariketa horietako batzuk erabilitakoak dira; beraz, sortzaile izateko txanda iristen zaienean, jakinda beraiek sortutakoak besteek ere egingo dituztela noiz edo noiz, gustura egiten dituzte eta euren onena ematen dute ahalik eta ongien gera daitezen.

### **Literaturaren lanketa**

Hainbat lanketa ezberdin diseinatu dut alor honetan murgiltzeko eta guztiek aipatutako filosofia jarraitzen dute: ezagutza sortu eta berau gizartearen esku ipini. Horietako lau azpimarratuko nituzke:

**Apunteak sortu.** Eduki kontzeptualei dagokienean (autoreak, obrak, korronteak...), ikasleak dira ikasi beharreko eduki horiek sortzen dituztenak. Abiapuntu gisa, prozesu osoan zehar gidari izango duten webquest bat erabiliko dugu (*XX. mendeko literatura*<sup>11</sup>). Hasteko, sortu beharreko materia osoa taldetan banatzen dugu. Talde bakoitzak edukien atal horren ardura hartuko du eta bere lana amaitzean, taldekideek beste guztien aurrean aurkeztu beharko dute lana irakasleak bailiran. Irakasleak prozesu osoa gainbegiratu eta zuzenduko du. Irakasleak eta ikasleak, helburu horrekin diseinaturiko txantiloak erabiliz, jendaurreko aurkezpenak nahiz sortutako apunteak baloratuko dituzte. Horretaz gain, taldekide bakoitzak bere taldekoen balorazioa egingo du eta ikasle bakoitzak bere lanaren autoebaluazioa. Sortutako apunteak nahiz aurkezpenak denon eskura jartzen dira.

**Istorio elkarreragileak idatzi.** Ez dut ezer asmatuko esaten badut idazmena hobetzeko, ezinbestekoa dela idaztea. Eta aurrera eramateko hain sinplea diruen baieztapena neketsua gerta daiteke ikasle zein irakaslearentzat atsegin pixka batez egiten ez bada.

Nire ikasleen adinarekin, 17-18 urte, idaztearen kontu honen inguruko aurreiritzia eta jarrera aldaraztea ia ezinezkoa da: atsegin duenak atsegin du eta gustatzen ez zaionari, gehienetan, ez zaio batere gustatzen edo gorroto du. Gauzak horrela, idazteko zaletasun hori nolabait piztu nahian eta wikiak elkarlana bultzatzeko eskaintzen duten aukerez baliatuz, ikasleentzat erakargarri suertatzen den egitasmo bat burutu ohi dugu: bakoitzak bere istorioa idatzi beharrean, gela bakoitzeko (bi gela ditugu) istorio bana ekoizten dugu.

Lehenengo urratsa bi wiki sortzea izaten da eta, hurrengo, baimenak banatzea. Gela bateko ikasleek wiki batean lan egin dezakete, hau da, bakarrik wiki hori ikus, edita eta alda dezakete. Beste gelakoekin beste horrenbeste egiten da. Euskal idazle garaikide baten kontakizun baten hasiera ematen zaie ikasleei eta, ondoren, egutegi zehatz bat eta hainbat baldintza jarraituz, istorioa ostzen joan behar dute:

- Ikasle batetik bestera hiru eguneko epea dago (aurreko guztia irakurri eta jarraipen egokia emateko denbora izan dezaten eta irakasleak zuzenketak egin ditzan).
- Bakoitzaren ekarpena 10-15 lerro bitartekoa da.
- Aurrez idatzitakoarekin kohesioa (istorioaren haria, narratzailea, ikuspuntua...) mantentzea ezinbestekoa da.
- Ortografia arauak errespetatu behar dira.
- Ikasitako guztia (sinonimoak, esamoldeak, egiturak...) praktikan jartzeko aukera polita izan daitekeela gogorarazten zaie; azken finean, horiek guztiak dira ekoizpen aberats baten seinale.

Aurretik aipatu dugun eran, wikiak zuzenketak ikusteko aukera ematen dute. Denek ikus ditzakete irakasleak egindako zuzenketa guztiak eta horiengandik ikasi.

Urtero esperientzia polita izaten da. Entzuteko modukoak dira ikasleen arteko elkarrizketak lanketak irauten duen bitartean! Bata besteari azalpenak eskatzen: ea zer adierazi nahi duen honelako edo bestelako adierazpenak, protagonistaren jarrera zer dela eta aldatu den, zergatik gertakizun hau edo beste... Harreman literarioa ahalbidetzeaz gain, bestelako jarrerak sustatzeko ere guztiz baliagarria delako irudipena dut: talde bateko kide sentitzea, elkarreragitea, integrazioa, konplizitatea... Lanketa osoa eskolako orduetatik kanpo egiten dugu eta oso pozgarria da ikustea ikasleek, gauetan eta etxetik, kontakizunaren azken gorabeherak jarraitzen dituztela (wikiak nor ari den idazten, nork idatzi duen, aldaketak nork sartu dituen eta hamaika gauza gehiago ikusteko aukera ematen du).

Zaila da mota honetako lanketa bat hitz gutxitan laburtzea. Helburu nagusia, idazle grina piztea, ez da egun batetik bestera lortzen. Hori garbi dago. Baina zalantzarik gabe, jarrera indibidualistak gero eta gehiago azaleratzen diren gizarte honetan, ikasleen arteko elkarlana zein talde-kontzientziazioa (bakarkako jarrerak saihestuz) sustatzeko baliagarri gerta dakiguke. Edo, horretarako bidean, behinik behin, pauso txiki bat emateko.

**Irakurlearen txokoa<sup>12</sup>.** Irakurzaletasuna bultzatu nahian, derrigortutako irakurgaiak alde batera utzi eta ikasleei irakurriko dutena hautatzeko aukera ematen zaie. Jarraian, autore eta liburuari buruzko informazioarekin, deigarriena iruditu zaienarekin eta iritzi kritikoarekin euskaljakintzako *Irakurlearen txokoan* argitaratzeko artikulu bat idazten dute. Lanketa honekin lortu nahi duguna zera da: alde batetik, bakoitzak hautatutako liburu eta autoreak ezagutzea eta, bestetik, ezagutzera ematera. Honela, ikasle guztiek denen autore eta obrak ezagutzeko, komentatzeko eta irakurtzeko -erreferentzia gustuko badute, behinik behin- parada dute.

**Boz gorako irakurketa.** Abian ipinitako beste egitasmo bat boz gorako irakurketarekin zerikusia du. Egitasmoaren helburu nagusiak boz gorako irakurketan trebatzea, irakurzaletasuna bultzatzea eta euskal idazle zein literaturaz zertxobait gehiago jakitea eta jakintza hori zabaltzea dira. Ikasleek, hainbat aholku jarraituz, autore ezberdinen obrak mp3 formatuan grabatzen dituzte. Grabazio guztiak (ipuinak, narrazio laburrak, poesia...) eta autoreei dagokien informazioa horretarako sortutako blog batean ipintzen ditugu, *entzun<sup>13</sup>* deituriko blogean, hain zuzen ere. Ikasleak boz gorako irakurketan trebatzeaz gain, grabatzen dituzten obrak ezagutu eta ezagutzera ematen dituzte.

## **Metodologia aldaketarekin lortutakoa**

Ikasleek proiektua berea egin dute eta hori oso motibagarria izan da niretzat. Partekatzen ikasten ari gara, elkarrengandik ikasten dugu, aprendizaia askoz ere dinamikoagoa bihurtu da eta komunikazioak (ikasleen artean zein irakaslearekin) gelako mugak gainditu ditu (konexioa dagoen edonondik, eskola orduz kanpo ...). Laburtuz, motibazioa piztu da.

Aurreko guztiaz gain, ikasle aktibo eta gogotsuagoak lortzeko bidean ipini gara. Hasiera-hasieratik garbi nuen hori izango zela gure helburu nagusienetako bat; izan ere, gaur egungo eskolak

eta bertan erabiltzen den metodologiak ikaslearen pasibotasuna bultzatzen dutelakoan nago. Geldotasun hau alde batera utzi eta ikasle aktiboak, parte hartzaileak, gogotsuak, irekiak eta gizartearekin konpromiso irmoa azaltzen dutenak lortuko baditugu, aldaketa ezinbestekoa da. Niri dagokidanez, aldaketarako prozesu korapilatsu eta luze horretan, euskaljakintza urrats bat izan da.

Aipatutako guztiak hasieran genituen helburuak gainditzera eraman gaitu eta balorazioa guztiz baikorra da. Halere, ezin dugu ahaztu hemendik aurrera orain arte baino abiada biziagoan aldatuko direla gauzak. Hortaz, erronka berriei aurre egingo badiegu, gure jarrera ere aldatu beharko dugu. Badirudi lan handia gelditzen zaigula egiteke, gauza asko ikasteke. Gainera, zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta gehiago jakin nahi, eta hori, uneoro gauzak aldatzen doazen esparru honetan, zenbaitetan neketsua izan daiteke. Edonola ere, zailtasunak zailtasun, sinetsita nago haxe dela jarraitu beharreko bidea. Zorionez, euskara eta teknologia berriak bikote ederra egiten dute.



### **ARGIBIDEAK:**

<sup>1</sup> Blog: Blog (edo Weblog) bat, anotazio, istorio edo artikulua publikoak idazten diren Interneteko webgune bat da. Blogari bakoitzak anotazioak egunkari edo bitakora moduan idazten ditu eta hauek kronologikoki argitaratuz doaz bere blogean. *Wikipedia*

<sup>2</sup> Wiki: Wikia (hawaiierazko wiki wiki hitzetik, "azkar-azkar") webgune mota bat da; bertan erabiltzaileek orrialdeak sortu, aldatu, ezabatu eta eraldatu ditzakete. Horrela, elkarlana bultzatzeko modu egokienak dira. Aise alda daitekeen web orri bilduma da. *Wikipedia*

<sup>3</sup> Webquest: Webquest bat ikerketara zuzenduriko jarduerak prestatzeko webgune bat da. Erabiltzen eta kudeatzen den informazio guztia edo ia guztia saretik dator eta, ikasleak analizatu, sintetizatu eta ebaluatzen bultzatzen ditu, besteak beste. Irakasleek diseinaturiko jarduera hauek ikasleak aktiboki parte hartzea du helburu, baita apendizaiak kolaboratiboa nahiz denborari etekin handiagoa ateratzea ahalbidetzea ere.

<sup>4</sup> Batzaile: Batzailea da webgune automatiko bat, eta horrek maiztasun jakin batez hainbat informazio iturri arakutzen ditu modu automatikoan, sarean argitaraturiko azken berriak jasotzeko; batzaileak modu automatikoan erakutsi eta antolatzen ditu informazio iturri horiek, erakusten baititu iturrien izenburua, paragrafo bat eta lotura bat. Batzailean informazio iturriak etengabe ari dira eguneratzen, modu automatikoan, robot bati esker. *Wikipedia*

<sup>5</sup> Marka-gune sozial: laster-markak gordetzeko webguneak dira. Gordetako laster-markak etiketen bidez sailkatu, edonondik eskuragarri izan eta beste erabiltzaileekin parteka daitezke.

<sup>6</sup> IKTeroak: Ordiziako Jakintzako Ikastolako irakasle talde baten bloga. <http://ikteroak.blogsome.com>

<sup>7</sup> Jakinstein: Ordiziako Jakintza Ikastolan DBHO 2. mailako Fisika irakasgaiko bloga. <http://www.jakinstein.com>

<sup>8</sup> Euskaljakintza: Ordiziako Jakintza Ikastolan DBHO 2. mailako Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiko bloga. <http://www.euskaljakintza.com>

<sup>9</sup> Solasean: Elkarrizketak lantzeko webquesta.

[http://www.phpwebquest.org/euskera/webquest/soporte\\_izquierda\\_w.php?id\\_actividad=624&id\\_pagina=1](http://www.phpwebquest.org/euskera/webquest/soporte_izquierda_w.php?id_actividad=624&id_pagina=1)

<sup>10</sup> Ahozketasuna lantzen: Ahozketasuna lantzeko webquesta.

[http://www.phpwebquest.org/euskera/webquest/soporte\\_tabbed\\_w.php?id\\_actividad=251&id\\_pagina=](http://www.phpwebquest.org/euskera/webquest/soporte_tabbed_w.php?id_actividad=251&id_pagina=)

<sup>11</sup> XX. mendeko literatura: XX. mendeko euskal literatura lantzeko webquesta.

[http://www.phpwebquest.org/euskera/wq2/webquest/soporte\\_mondrian\\_w.php?id\\_actividad=110&id\\_pagina=1](http://www.phpwebquest.org/euskera/wq2/webquest/soporte_mondrian_w.php?id_actividad=110&id_pagina=1)

<sup>12</sup> Irakurlearen txokoa. Irakurzaletasuna bultzatzeko gunea.

<http://irakurgaiak.weebly.com/>

<sup>13</sup> Entzun: boz gorako irakurketa eta euskal literatura sustatzeko gunea. <http://entzun.blogspot.com/>